

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

Udalaren biztanle erroldan ofizioz bajak emateko prozedura

Ondoren adierazten den pertsonari, saiatu arren, ezin izan zaionez jakinarazi udal honek jakin duela Toki Erakundeen Biztanleen eta Lurralde Mugaketaren erregelamendua onesten duen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren 54. eta 72. artikuluetan xedatutakoak ez dituela betetzen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 44. artikuluan xedatutakoa betetz, hau jakinarazten zaio:

IZEN-ABIZENAK	AGIRIA
IANCU GHEORGHE ROMANA	X5XX917XX
ISAM HADDOUR	X5XX909XX
SABINA QUINTEROS SANCHEZ	X4XX64X4X
CAMILO DOS SANTOS MARTINS FANECA	XX86XX95X
MERYEM AOUI	X1X9XX04X
PATRICK KAMGA AMBE	XX17XX86X
LOFTI BEKOUCHE BEKOUCHE	58XX69XXX

Udal honetako alkateak 74/2021 Ebazpenaren bidez hau ebatzi du:

“Lehenengoa: Izapidetzeko onestea eta ofizioz espedientea irekitzea, Lantziegoko Udalaren biztanle erroldan baja emateko ondoren zehazten den pertsonari, arauz kanpo erroldatuta baitago:

IZEN-ABIZENAK	AGIRIA
IANCU GHEORGHE ROMANA	X5XX917XX
ISAM HADDOUR	X5XX909XX
SABINA QUINTEROS SANCHEZ	X4XX64X4X
CAMILO DOS SANTOS MARTINS FANECA	XX86XX95X
MERYEM AOUI	X1X9XX04X
PATRICK KAMGA AMBE	XX17XX86X
LOFTI BEKOUCHE BEKOUCHE	58XX69XXX

Bigarrena. Bat etorri Toki Erakundeen Biztanleen eta Lurralde Mugaketaren erregelamenduen 72.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluan xedatutakoarekin, entzunaldiko hamabost egun ematea interesdunari udal bulegora etor dadin, 10:00etatik 14:00etara, espedientea aztertu, bajarekin ados dagoen ala ez esan eta egoitza non duen egiaztatzeko egoki jotzen dituen alegazioak, agiriak eta argibideak aurkezteko. Ohartarazten zaio, halaber, epe horretan erantzunik jasotzen ez bada, espedientearekin jarraituko dela, harik eta Lantziegoko udalaren biztanle erroldan ofiziozko baja gauzatu arte.

Hirugarrena. Ebazpen hau argitaratzea EAOn, ALHAOn eta udaletxeko iragarki taulan, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 44. artikuluan ezarritakoarekin.

Laugarrena. Bat etorri Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuaren 42. artikularekin, alkatetik ebazpen honen berri emango dio Udalbatzari hurrengo ohiko bilkuran, dagozkion legezko ondorioak izan ditzan.”

Horrako hori jakinarazten zaio jakinaren gainean egon eta dagozkion ondorioak izan ditzan. Jakinarazten zaio, halaber, hamabost eguneko epea duela, iragarki hau EAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, entzuna izan dadin.

Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 44. artikuluan ezarritakoarekin, ebazpen honen aurka ez dago errekurtsorik jartzetik, izapidetze hutsa baino ez da eta. Izapide honen aurka dagoela alegatu ahal izango du, eta alegazio hori prozedurari bukaera ematen dion ebazpenean hartu ahal izango da aintzat.

Lantziego, 2021eko abuztuaren 18a

Alkatea

ITZIAR DE ÁLAVA MARTINEZ DE ICAYA